



I PLAN
ESTRATÉGICO
DE CONVIVENCIA
DE NAVARRA

NAFARROAKO
BIZIKIDETZAREN
I. PLAN
ESTRATEGIKOA

NAFARROAKO BIZIKIDETZAREN I. PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2024

Bizikidetzarako, Oroimenerako eta Giza Eskubideak aplikatzeko
proposamenak.

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



1. Aurkezpena

Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa da Nafarroako Gobernuak 2021-2024 aldian Foru Erkidegoan elkarbizitza-giroa hobetzeko proposatutako jarduera-esparru nagusia. Plangintza honen helburua da «Bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoirako programa-akordioa»ren 3.11 kapituluan («Oroimena, bakea, bizikidetzazko eta giza eskubideak») jasotako jarduera-proposamenari erantzutea; honela dio, hitzez hitz: «Bizikidetzaren, Oroimenaren eta Giza Eskubideen Plan Estrategikoa bat garatzea, ahalik eta kontsentsurik handiena erdietsiko duena, eta arlo horietan jarraitu beharreko ildo estrategikoa ezarriko dituen».

2019ko abenduan, Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak agindu zuen, abenduaren 5eko 73E/2019 Foru Aginduaren bidez, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zerbitzuak ekin ziezaiola Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa egiteko prozesuari.

Handik aurrera, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia Plana egiten hasi zen, elkarriketan, parte-hartzean eta elkarlanean oinarritutako ikuspegiarekin. Hala, topaketez eta ekarpenez osaturiko dinamika zabal bat egin zen, zeinak Nafarroan bizikidetzak duen egoerari buruzko ikuspegi desberdinak adierazteko eta partekatze bidea eman baitu: hamaikatxo ikuspegi dira, kasu batzuetan desadostasun handiak dituztenak, baina beste askotan bat datozela eta elkarren osagarri direla erakusten dutenak. Horri esker, arazo nagusiak, erronkak eta jarduteko aukerak identifikatu ahal izan dira, hasieratik sektore politiko, sozial eta instituzional desberdinen arteko etengabeko truke- eta ikaskuntza-prozesu baten aldeko apustua eginez.

Aipatu beharra dago, halaber, COVID-19ak eragindako pandemiak modu erabakigarrian baldintzatu zituela bai parte-hartzezko lana antolatze akerak, bai prozesuan parte hartu zuten sentzibilitate eta ikuspuntu desberdinak ere. Hasiera batean, larrialdiari aurre egiteko neurriek osasun-eta ekonomia-premietan jarri behar zuten arreta; nolana ere, gertatzen ari ziren ondorio humano eta sozialek bizikidetzaren alderdi batzuei eta pertsonen eskubideei eskaini beharreko indarra eta garrantzia apaltzen zuten.

Hori dela eta, Nafarroa Suspertu 2020-2023 gobernu-planak, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak pandemiak eragindako ondorioetarako erantzun orokor bat prestatu baitu, lehentasunezko neurrien artean jaso zuen Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa martxan jartzea.

Lanketa-prozesuaren ondoren, Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa proposamen eraldatzaile bat izateko asmoz sortu da, eta gure Foru Erkidegoko bizikidetzazko eta giza garapena hobetzeko beharrezkoak diren aldaketa sozial, politiko eta instituzionalak bilatzea du helburu. Espero dugu, eta hala nahi dugu, plana ezartzeak aukera emango duela haren sorreran erakutsitako elkarriketa, elkarlan eta erantzunkidetasunarekin aurrera jarraitzeko eta hura indartzeko.

2. Plana prestatzeko prozesua

Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa egiteko prozesuak lau fase ditu:

Lehenbiziko fasea edo **atariko fasea** *ideia-zaparrada* gisa planteatu zen; Nafarroako bizikidetzari buruzko ikuspegiaren, esanahien analisisaren, jarreraren eta abarren hasierako galdeketa bat egin zen, bai eta plan estrategikoa bat aurrera eramatearen bidez kototasunari buruzkoa ere. Fase horretan bi prozesu antolatuta ziren aldi berean:

- Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian, Bizikidetzaren Liburu Irekia gaitu zen; liburu horretan, edozein pertsona, erakunde edo entitatek askatasunez adierazten ahal zituen bizikidetzaren gaineko ideiak eta ekarpenak.
- Zenbait elkarrizketa-saio egin ziren Nafarroan bizikidetzaren lanarekin zerikusia duten pertsonekin —politikagintzan, hezkuntzan, esparru sozialean eta abarretan dihardutenak, besteak beste—.

Atariko fase horren emaitza gisa, Bizikidetzaren Liburu Irekiaren ekarpenak eta Nafarroako 50 pertsona eta entitatek baino gehiagok egindako elkarrizketak bildu eta argitaratu ziren Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian, eta *Hamar ideia indargarri* izeneko laburpen-dokumentua erantsi zen.

Plana egiteko fasea deituriko bigarren aldia truke-ariketa zabalago gisa pentsatua zen, nabarmen handitu baitzen sektore politiko, sozial eta instituzionalen parte-hartzea. Hori horrela, sakonagoa da analisisaren irismenari dagokionez. Fase horretan aplikatzeko pentsatutako metodologia eta tresnak, funtsean, lan-mahai sektorialetan oinarriturik zeuden, baina moldatu egin behar izan ziren, COVID-19ak eragindako pandemiak jarritako mugak eta baldintzatzaileak kontuan izanik. Hala, etengabe egokitu behar izan ziren, ekarpenak aurkeztu nahi zituzten pertsonen inplikazioa eta parte-hartzea ahalik eta gehien errazteko. Modu askotara lortu da 67 erakundek eta 300 lagun inguruk parte hartzea: mahai sektorialak, onlineko topaketak, berariazko jardunaldiak, elkarrizketa pertsonalak, fitxak betetzea eta abar.

Hirugarren fasea Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa jendaurrean jartzea izan da, behin betiko onetsi aurretik helburuen eta ekintzen proposamena ezagutarazteko eta iradokizunak edo alegazioak jasotzeko.

Azken fasean, Nafarroako Gobernuak izapidetu eta onetsi egin behar du Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa, eta, ondoren, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak Parlamentuan aurkeztu.

3. Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoaren oinarriak

Nafarroako gaur egungo bizikidetzari buruzko azterketan sei errealitate nabarmentzen dira; konplexuak eta garrantzitsuak dira, eta, horregatik, arreta berezia eta lehenasunezkoa eskatzen dute. Hauexek dira:

- Giza eskubideak aplikatzea.
- Iritzi eta ideologia desberdinen arteko bizikidetzaren, identitate desberdinen artekoa, sexu- eta genero-aukera desberdinen artekoa, ikuspegi laiko eta erlijioso desberdinen artekoa, kultura eta jatorri desberdinen artekoa.
- Terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimen eskubideak onartu eta aplikatzea.
- Oroimen kritiko eta inklusiboa eraikitzea.
- Geure burua hezteko eta ikasteko beharra, elkarrekin bizitzeko.
- Erakundeen eredugarritasuna eta elkarbizitzaren erreferente izateko gaitasuna.

Benetako erronkak dira, eta haiek ondo gainditzearen araberakoa izango da, hein handi batean, gure bizikidetzaren etorkizunean. Horregatik, gai horiek pisu handia dute Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoko helburu orokor eta espezifikoko egituraturako dituzten ardatz estrategikoen definizioan.

4. Nafarroako bizikidetzaren AMIA analisia

AMIA lau analisi-kategoriari dagokion akronimoa da: ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak. Era honetako analisi estrategikoetan, ahuleziak eta indarguneak honako hauei dagozkie: Nafarroako sistema eta antolaketa instituzionala, esparru juridikoa, sare sozial eta ekonomikoa, balio-sistema eta dinamika soziokulturalak. Mehatxuak eta aukerak gure eskualdeko, mugaz gaindiko, estatuko, Europako eta nazioarteko koiuntura eta testuinguruei dagozkie.

AHULGUNEAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none">• Elkarren arteko aintzatespenik eza nortasun desberdinak dituzten pertsonen artean.• Neutraltasun erlijiosoari buruzko desadostasunak instituzioen artean.• Lurralde desoreka; migratutako pertsonen proportzio handia Nafarroako auzo eta herri batzuetan.• Nafarroan dauden kulturetako pertsonen arteko ezagutzarik eta harremanik eza.• Euskara sustatzeko konponbide egokia aurkitzeko zailtasunak.• Jardun politikoan ez zaio garrantzirik ematen bizikidetzari.• Gizartea polarizatzen duen asaldu politikoa.• Administrazioan giza eskubideei buruzko trebakuntza eskasa.• Arrakala estruktural nagusiak zabalteko joera; batez ere, lan-prekaritatearen eta oinarritzko ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko zailtasunen ondorio direnak.• Toki-erakundeek ez dute giza baliabiderik eta baliabide ekonomikorik gizarte-aldaketak kudeatzeko.• Zeregin eta xede komunak dituzten erakundeen arteko koordinazio eskasa.• Irizpide desberdinak indarkeriazko iraganaren oroimena lantzeko.• Terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimen eskubideak bereizkeriarik gabe onartzeko erresistentziak.• Terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimak berriz biktimizatzen dituzten elementuak daude.• Terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimen manipulazio politikoa.• Inbertsio eskasegia hezkuntza-ereduan desberdintasuna eta bizikidetzaz- arazoak geldiarazteko.• Erakundeetan eta komunikabideetan diskurtso eta eztabaida politikoetan erabiltzen den hizkuntza ordezkatzeko beharra.	<ul style="list-style-type: none">• Nafarroako Erkidegoan pluraltasun politiko, sozial, identitario eta linguistiko handia dago.• Itun politiko eta sozialen kultura.• Inbertsio sozial handia, eta eskubideen berdintasunerako neurri eta planak ongi garatuta.• Pertsona guztien eskubideak onartzen dituen lege-esparru oso aurreratua.• Elkarre-sare zabal eta sendoa.• Ekonomia- eta enpresa-sare sendoa.• Nafarroan, erlijio ezberdinen arteko bizikidetzaz errespetuzkoa eta baketsua da.• Hiru unibertitate daude, NU, NUP eta UNED, baita beste ikerketa-zentro batzuk ere.• Bizitza artistiko eta kultural aberatsa dago Nafarroan eta bertako udalerrietan.• Eskola-bizikidetzaz eta esperientzia berritzaileak bultzatzen dituzten esparru juridikoa eta metodologiak.• Giza eskubideak ez urratzeko eskakizuna ezinbesteko printzipio gisa onartua izaten ari da pixkanaka.• Indarkeria helburu politikoak lortzeko tresna gisa deslegitimatzeko beharra onartzen du gehiengoak.• Biktima guztien mina aitortzeari eta enpatia sustatzeko beharrari buruzko adostasun sozial eta politiko zabala.• Adostasuna puntu honetan: ez dago oraintsuko historiari buruzko ezagutza objektiborik, eta gabezia horri aurre egiteko edukiak sartu behar dira hezkuntza-sisteman.

MEHATXUAK

- Migrazioak eta aniztasuna mehatxutzat hartzen dituzten diskurtsoak.
- Herritarrek gero eta desafekzio politiko eta instituzional handiagoa dute.
- Sare sozialek eragin negatiboa dute, aurreiritziz, diskriminazioz eta gorrotoz beteriko diskurtsoen bidez.
- Muturreko taldeen erradikalizazio bortitza.
- Sektore publikoa ahultzea eragiten duten joerak.
- Izaera populista-nazionalista duten mugimenduen gorakada, zeinek azpimarratzen baitute nazionalek lehentasuna dutela eskubideetan.
- Haustura gehiago, eta arrakala ekonomiko eta sozial handiagoa COVID-19aren krisiaren ondorioz.
- Terrorismoari eta indarkeria politikoari buruzko oroimena galtzea gizartean, eta gai horri buruzko ezjakintasuna belaunaldi gazteenetan.
- Indarkeriazko iragana desitxuratzea eta zuritzea.

AUKERAK


- Giza eskubideen eta bizikidetzaren aldeko aliantza instituzionalak.
- COVID-19ak eragindako krisiaren ondorengo gogoeta-testuingurua, bizikidetzan oinarritutako etorkizunaren funtsezko alderdiei dagokienez.
- Erakundeen bultzada hezkuntza hobea, inklusiboagoa eta bidezkoagoa erdiesteko.
- Erakundeen bultzada oroimen, bizikidetzaren eta giza eskubideei buruzko hezkuntza-programak garatzeko.
- Hasita dago jada bizikidetzaren eremu guztietan elkarrizketarako eta parte-hartzerako espazioak indartzeko eta zabaltzeko bidea.
- Oroimenaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen politikak hobeto kokatuta daude gure erkidegoko giza garapenerako elementu gisa.
- Politika eta aurrekontu sozialak areagotzea.
- Baliabide digitalak bizikidetzarako tresna gisa.
- Komunikabideak egiazkotasunean eta independentzian oinarritutako kontraste-elementuak izateko aukera, albiste faltsu, gezur eta informazio diskriminatzaileei aurre egiteko.

5. Helburu orokorra

«Nafarroa demokratiko, plural eta askotarikoan berdintasunean eta askatasunean oinarritutako bizikidetzara eraikitzea»

Hori da Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoaren helburu orokorra. Helburu horrek azken helburu bat ezartzen du, eta horretan lagundu behar dute planifikatutako ekintza guztiek. Horrek esan nahi du gizarteak, erakundeek eta politikaren munduak baterako ikaskuntzarako eta lankidetzarako lan handia egin behar dutela bost balio/zutabe handiren inguruan: berdintasuna, askatasuna, demokrazia, pluraltasuna eta aniztasuna.

- a) **Berdintasuna:** pertsona guztiei ekitatea eta eskubideak bermatzen dizkien erkidego baten oinarria.
- b) **Askatasuna:** bizitzeko modua, identitatea, sinesmenak eta ideologia aukeratzeko eta aukera horiek bereizkeriarik jasan gabe adierazi ahal izateko.
- c) **Demokrazia:** gizartea aldatzeko, indarkeriarik gabe, elkarrizketaren eta parte-hartze sozial eta politikoaren bidez.
- d) **Pluralismoa:** giza eskubideak errespetatzen badira, aukera pertsonal eta politiko guztiak dira zilegi.
- e) **Aniztasuna:** aberastasuna, hazteko aukerak eta berrikuntza sozial eta kulturala ekartzen dituena.



6. Programazioaren printzipio estrategikoak.

Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoak jarduera-printzipio estrategiko batzuk zehazten ditu proposamen metodologikoan, zeinak ezinbestekoak baitira planean ezarritako helburuak garatu eta lortzeko.

Printzipio horiek honela zerrendatu eta azaldu dira:

- **Errespetua:** Pertsona, erakunde eta instituzio guztiak beren aniztasunean eta pluraltasunean aitortu eta onartzeko. Giza eskubideak pertsona guztiei aplikatzeko. Asaldua apaltzeko. Indarkeria helburu pertsonal, sozial edo politikoak lortzeko tresna gisa desagerrarazteko.
- **Elkarrizketa:** Jarrerak aldatzeko eta elkar ulertzeko bide berriak irekitzeko. Loturak eta aliantzak ezartzeko, eta. ondorioz, konfrontazioaren ordez lankidetzaz izateko. Pertsonengan eta erakundeetan konfiantza sortzeko.
- **Lankidetzaz:** Instituzioen, gizarte-erakundeen, enpresen eta herritarren ahaleginak koordinatzeko. Parte-hartzea eta giza eskubideen aplikazio eraginkorrekiko konpromisoa areagotzeko. Gobernantza ona lortzeko.
- **Berrikuntza:** Bizikidetzaren erronkei hobeto egokitutako baliabide eta tresna berriak garatzeko. Erkidegoaren ekintzak eta ekimenak hobetzen lagunduko duten soluzio tekniko eta finantzario berriak aurkitzeko. Plana aplikatzean sortzen diren ondorioak monitorizatzen eta ebaluatzen.
- **Ikuspegi berria:** Giza eskubideen, bizikidetzaren eta oroimenaren politikek duten garrantzia kontuan hartzeko. Maila globalean eta tokian tokikoan pentsatzeko. Giza eskubideak jarduera-eremu guztietara zabaltzeko. Generoaren eta adinaren ikuspegi bide iraunkorra emateko. Bizikidetzaren aldeko lanarekin jarraitzea bermatuko duen epe luzeko ikuspegia hartzeko. Itunak eta trantsizio-ereduak eraikitzen, etorkizuneko belaunaldiei Nafarroa berdinzaleago batean eta kalitatezko bizikidetzan bizitzeko aukera emango dietenak.

7. Programazioa. Ardatz estrategikoak, helburuak eta ekintzak.

Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoak sei ardatz nagusi ditu. Ardatz horietako bakoitzak helburu orokor bat, berariazko helburu batzuk eta ekintza batzuk ditu.

Sei ardatz horiek Planaren oinarriak jartzeko lanekin zuzenean lotutako helburuak eta jardura-proposamenak lantzen dituzte, eta gaur egun lehentasunezko esparrutzat jotzen dira Planak hartzen duen lan-aldirako: 2021-2024.

Bestalde, Planaren alderdi operatiboena osatzen duten ekintzak irizpide hauen arabera hautatu dira: hautemandako beharretara hobeto egokitzea, premiazkotasuna, bideragarritasuna, egokiera eta palanka-efektua.

1. ARDATZA	GIZA ESKUBIDEAK APLIKATZEA
2. ARDATZA	ANIZTASUNEAN ELKARREKIN BIZITZEA
3. ARDATZA	TERRORISMOAREN ETA INDARKERIA POLITIKOAREN BIKTIMEN ESKUBIDEAK
4. ARDATZA	OROIMEN KRITIKO ETA INKLUSIBOA ERAIKITZEA
5. ARDATZA	BIZIKIDETZARAKO HEZTEA
6. ARDATZA	BIZIKIDETZARAKO ERREFERENTE DIREN ERAKUNDEAK

LEHENTASUNEZKO
ARDATZA



HELBURU OROKORRA
HELBURU ESPEZIFIKOAK
EKINTZAK

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: GIZA ESKUBIDEAK APLIKATZEA

Giza eskubideak demokraziaren zimenduen parte dira, eta haien aplikazioaren araberakoa izanen da, neurri handi batean, Nafarroako bizikidetzaren kalitatea. Nafarroako Gobernuaren ikuspegitik, zeina bat baitator eragile sozial, politiko eta instituzionalenarekin, unibertsitateenarekin eta Foru Erkidegoko adituenarekin, honako gai hauek lehenetsi dira giza eskubideak aplikatzeko:

- a) *Giza Eskubideen aplikazioari garrantzi berezia ematea honako errealitate hauetan: terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimak, migratzaileak eta errefuxiatuak, egiturazko desberdintasun ekonomikoak eragindakoak, diskriminazioa eta/edo indarkeria jasaten duten emakumeak, ezgaitasuna dutenak, presoak; eta ingurumen seguru, garbi, osasungarri eta jasangarrian bizitzeko eskubidea.*
- b) *Giza eskubideen aplikazioa monitorizatzea.*
- c) *Giza eskubideekiko erantzunkidetasuna eta konpromisoak sustatzea.*
- d) *Erakundeen arteko lankidetzaren ezartzea, baita gizarte-elkarteekikoa ere.*

Horregatik guztiagatik, 1. ardatz estrategikorako helburu eta ekintza hauek definitu dira:

1. HELBURU OROKORRA: Nafarroako erakundeen, politikaren, gizartearen eta ekonomiaren alorreko jardueretan giza eskubideak aplikatzeko mekanismoak bultzatzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK:

1.1. HE. Giza eskubideekiko konpromisoa garatzea dakarten ekimen instituzional, sozial eta ekonomikoak sustatzea.

(E1) 1.1.1. Ekintza. Ikerketa-zentroei eta gizarte-erakundeei laguntza emateko deialdia, Nafarroako Foru Erkidegoan gertatutako giza eskubideen urraketei buruzko txostenak egiteko.

(E2) 1.1.2. Ekintza. Irabazi asmorik gabeko entitateei laguntza emateko deialdia, giza eskubideekiko eta bizikidetzarekiko konpromisoa sustatzen duten proiektuak egiteko.

(E3) 1.1.3. Ekintza. Nafarroako toki-erakundeei laguntza emateko deialdia, giza eskubideekiko eta bizikidetzarekiko konpromisoa sustatzen duten proiektuak egiteko.

(E4) 1.1.4. Ekintza. Enpresei laguntza emateko deialdia, giza eskubideen eta ingurumenaren arloan behar bezalako aholkularitza eta trebakuntza eskuratzeko.

(E5) 1.1.5. Ekintza. Hitzarmenak egitea zailtasun edo zaugarritasun bereziko pertsonengan edo kolektiboetan giza eskubideak aplikatzeko lan egiten duten gizarte-erakundeekin edo irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuekin.

(E6) 1.1.6. Ekintza. Giza eskubideei eta bizikidetzari buruzko jardunaldiak antolatzea urtero, non unibertsitateek, giza eskubideen institutuek, gizarte-erakundeek, administrazio publikoek eta abarrek hartuko baitute parte.

(E7) 1.1.7. Ekintza. Giza Eskubideei eta Enpresari buruzko jardunaldi espezifikoak antolatzea, Oroimena, Bakea, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen arloan beste autonomia-erkidego batzuekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenen esparruan.

(E8) 1.1.8. Ekintza. Giza eskubideen arloan sentsibilizatzeko programa bat garatzea urtero (“Pertsonak gara/Somos personas”), herritar guztiei zuzendua.

1.2. HE. Giza eskubideak aplikatzeko ahalegin tekniko eta finantzarioen koordinazioa eta eraginkortasuna hobetzea.

(E9) 1.2.1. Ekintza. Koordinazio-batzorde bat sortzea, Nafarroako Gobernu departamentuek osatua eta Bizikidetzeta, Oroimena eta Giza Eskubideen alorreko politiken ardura duen departamentua buru duena, Nafarroan giza eskubideak arlo guztietara zabaltzearekin zerkusua duten neurriak harmonizatzeko.

(E10) 1.2.2. Ekintza. Nafarroako Gobernuaren planen bidez egiten den giza eskubideen aplikazioan egin beharreko hobekuntzei buruzko txosten/proposamen bat egitea urtero.

1.3. HE. Giza eskubideen aplikazioa monitorizatzeko sistema bat izatea.

(E11) 1.3.1. Ekintza. Giza Eskubideen Behatoki iraunkorra sortzea Nafarroan.

(E12) 1.3.2. Ekintza. Nafarroan giza eskubideak aplikatzeari buruzko txosten bat egitea urtero.

(E13) 1.3.3. Ekintza. Toki-erakundeentzat beren udalerrietan giza eskubideak aplikatzeari buruzko gida eta baliabide metodologikoak prestatzea.

(E14) 1.3.4. Ekintza. Nafarroako zenbait esparrutan(erakundeetan, gizartean, ekonomian) giza eskubideak aplikatzeari buruzko jardunbide egokien katalogoak sortzea.

1.4. HE. Giza eskubideen arloan erakundeen arteko lankidetzeta sustatzea eta indartzea.

(E15) 1.4.1. Ekintza. Beste Autonomia Erkidego batzuekin sinatutako hitzarmenetan giza eskubideen arloan lankidetzan jarduteko neurriak txertatzea.

(E16) 1.4.2. Ekintza. Tokiko, estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekin etengabe lankidetzan aritzeko akordioak, helburu dutenak, besteak beste, giza eskubideak sustatzea eta defendatzea.

(E17) 1.4.3. Ekintza. Informazio- eta lankidetzeta-sistema bat ezartzea Global Campus of Human Rights Venice sarearekin, Nafarroarentzat interesgarriak diren Europako eta nazioarteko proiektu eta ekimenen jarraipena egiteko.

(E18) 1.4.4. Ekintza. Nafarroako Erkidegoan egoitza duten unibertsitateekin etengabeko koordinazio-esparruak sustatzea, Oroimenaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen arloan proiektu partekatutak ezartzeko.

1.5. HE. Foru Administrazioko langileak giza eskubideen arloan trebatzeko neurriak bultzatzea.

(E19) 1.5.1. Ekintza. Giza eskubideei buruzko oinarrizko trebakuntzako eskaintza bat garatzea Nafarroako enplegatu publikoentzat.

(E20) 1.5.2. Ekintza. Nafarroako Segurtasun Eskolako trebakuntza-planetan giza eskubideen arloko modulu teoriko/praktikoak sartzeko, Nafarroako polizia-kidegoei zuzenduak.

1.6. HE. Justiziaren esparruan gatazkak konpontzeko zerbitzu eta eredu berritzaileak sustatzea, aplikazio judizial eta penal hobea eta eraginkorragoa lortzeko.

(E21) 1.6.1. Ekintza. Justizia leheneratzaile intrajudizial eta komunitarioa eskaintzeko zerbitzu bat garatzea, gatazkak konpontzeko molde komunitarioak sustatzeko eta, hala, arazo sozialak epaibideetatik ateratzeko.

(E22) 1.6.2 Ekintza. Zigor-arloko betearazpen-zerbitzu bat sustatzea, delituak egin dituzten pertsonak gizarte-inklusioa bermatzen duten programen eta ekintzen bidez gizarteratu ahal izateko.

2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ANIZTASUNEAN ELKARREKIN BIZITZEA

Nafarroa erkidego askotarikoa eta plurala da hainbat eta hainbat arlotan: pertsonalean, kulturean, identitatean, ideologikoan, erlijioan. Nafarroaren aniztasunetik eta pluralismotik eratorritako gai batzuek erronka garrantzitsuak iradokitzen dituzte, eta tentsioak ere eragiten dituzte.

Bizikidetzaren eta giza eskubideen alorreko aditu espainiar zein nazioarteko batzuek diote politikak, erakundeek eta gizarte osoak ezberdinen arteko ituna erraztu behar dutela. Akordio sozial eta politiko hori ez da «erasorik ez egiteko» itun hutsa, ezpada eraikuntza positibokoa, Foru Komunitateko errealitate guztien eskubide eta betebeharren berdintasunean oinarrituriko errespetu- eta begirune-esparru egonkorra eman beharko lukeena.

Nafarroaren kasuan, badirudi errealitate desberdinen arteko bizikidetzaren erronkak eremu hauetatik eratorritako gaietan ardatzen direla nagusiki:

- a) *Pluralismo ideologikoa eta identitarioa.*
- b) *Aniztasun kulturala.*
- c) *Sexu- eta genero-identitatearen aniztasuna.*
- d) *Pluralismo erlijiosoa eta laikoa.*

Horiek horrela, 2. ardatz estrategikorako helburu eta ekintza hauek proposatzen dira:

2. HELBURU OROKORRA: Bizikidetzaren eredu berrietarako trantsizio-prozesuak sustatzea, elkar onartzean eta aniztasuna eta pluraltasuna positiboki baloratzean oinarrituak.

HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK:

2.1. HE. Harrerako eta kulturen arteko bizikidetzarako estrategia berriak bultzatzea.

(E23) 2.1.1. Ekintza. Kulturen arteko bizikidetzarako estrategia integral berria bultzatzea, gaur egun Nafarroako kultura-errealitate desberdinen arteko bizikidetzan dauden erronkei aurre egiteko eta epe ertainean erakundeetan eta gizartean kulturartekotasunaren ikuspegia finkatzeko xedez lan egiteko.

(E24) 2.1.2. Ekintza. Nafarroara iristen diren migratzaileei zuzendutako harrera-plana diseinatzea eta abiaraztea.

(E25) 2.1.3. Ekintza. Arrazakeriaren aurka borrokatzeko plan bat egitea eta abian jartzea, prebentzioa eta arrazakeriaren eta xenofobiaren biktimentzako arreta barne hartuko dituen.

(E26) 2.1.4. Ekintza. Toki-erakundeek kulturen arteko bizikidetzaren sustatzen duten jarduerak, plan eta zerbitzuak garatzeko duten konpromisoa sustatzea.

2.2. HE. Erlijio-eskubideak eta ikuspegi erlijiosoen eta laikoen arteko errespetua bermatzea.

(E27) 2.2.1. Ekintza. Nafarroako Gobernuaren eta sinesmen erlijioso ezberdinen arteko etengabeko elkarrizketarako eta lankidetzarako esparru bat sortzea.

(E28) 2.2.2. Ekintza. Ikuspegi laikoen eta erlijiosoen arteko jendaurreko topaketak eta elkarrizketak sustatzea.

2.3. HE. Sexu- eta genero-aniztasunaren ikusgarritasuna eta gizarte-normalizazioa areagotzea eta bereizkeriak desagerraraztea.

(E29) 2.3.1. Ekintza. Sexu- eta genero-aniztasunagatiko bereizkeriaren aurkako ekintza-programa bat garatzea, instituzioek eta esparru horretan lan egiten duten gizarterakundeek batera jardun dezaten.

2.4. HE. Errespetua sustatzea eta aniztasun ideologikoak eta iritzi-aniztasunak biltzen dituzten balio demokratikoak indartzea.

(E30) 2.4.1. Ekintza. Pluraltasuna eta adierazpen-askatasuna balioesteko jardunaldiak antolatzea.

2.5. HE. Nafarroako identitate-errealitate ezberdinen arteko bizikidetz-espazioak sustatzea.

(E31) 2.5.1. Ekintza. Maila aniztetako (herritarrak, adituak, erakundeak...) topaketak egitea, Nafarroako identitate-errealitate ezberdinen arteko bizikidetzatik eratortzen diren gaiei buruz jarduteko.

(E32) 2.5.2. Ekintza. Euskara Nafarroako ondare eta kultur balio gisa sustatzeari buruzko jardunaldiak antolatzea urtero.

2.6. HE. Kolektibo jakin batzuen aurkako diskriminazio-, aurreiritzi-, difamazio- eta gorroto-diskurtsoen eragina neutralizatzea.

(E33) 2.6.1. Ekintza. «Bizikidetz gorratorik gabe idazten da» programa egitea diskriminazio-, aurreiritzi- eta gorroto-diskurtsoen aurka.

3. ARDATZ ESTRATEGIKOA: TERRORISMOAREN ETA INDARKERIA POLITIKOAREN BIKTIMEN ESKUBIDEAK

Terrorismoa eta indarkeria politikoa sufritu duten pertsonak, giza eskubideen urraketa larrien mende egoteaz gainera, beren biktimagileek defendatzen zituzten errealitatearen ikuspegi monolitiko erabat baztertzaileren biktima izan dira. Biktimagileok indarkeria baliaturik suntsitu nahi zuten beren helburuen kontrako desadostasun eta aurkakotasun oro.

Nafarroan 85 urtez izaniko indarkeriak ez du inolako zilegitasun demokratikorik (36ko kolpistak, diktadura frankista, ETAren terrorismoa, eskuin muturreko taldeen terrorismoa, Estatuak egindako legez kanpoko indarkeria, kale-borroka eta terrorismo jihadistista), eta Foru Komunitate osoaren ahobatezko gaitzespena merezi du.

Biktima guztiek merezi dute aitortza, parekatzerik eta diluziorik gabe. Nolanahi ere, aitortza hori egiteko kontuan hartu behar dira gertaturiko indarkeria guztiak eta horien testuinguru historiko, sozial eta politikoak. Ezinbestean aipatu behar da Nafarroak modu berezian sufritu duela ETAren terrorismoa.

Talde sozial, politiko eta instituzional guztiak lan egin beharko luke gertakari horiek ez errepikatzea bermatuko duten baldintzak sortzeko, guztia ere enpatia, aintzatespena eta biktimen eskubideak asebetetzea abiapuntu harturik.

Beharrezkoa da pertsona hauen eskubideak kontuan hartzea:

- a) 1936ko kolpe militarren eta diktadura frankistaren biktimak.*
- b) ETAren terrorismoaren biktimak.*
- c) Terrorismo jihadistaren biktimak.*
- d) Eskuin-muturreko terrorismoaren biktimak.*
- e) Funtzionario publikoen indarkeriaren biktimak.*

Horretarako, helburu eta ekintza hauek ezarri dira:

3. HELBURU OROKORRA: Terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimen aitortza eta erreparazioa eta haien eskubideen asebetetzea bultzatzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK:

3.1. HE. 1936ko kolpe militarren eta diktadura frankistaren biktimen eskubideen aplikazioa bultzatzea.

(E34) 3.1.1. Ekintza. Indarkeria frankistaren ondorioz desagertutakoen hobiak aurkitzeko eta haien exhumatu eta berreskuratzeko urteko planarekin jarraitzea.

(E35) 3.1.2. Ekintza. Nafarroako DNA-bankuan lagin gehiago jasotzea.

(E36) 3.1.3. Ekintza. Nafarroako hobien mapa urtero eguneratzea.

(E37) 3.1.4. Ekintza. Erregimen frankistak desagerrarazitako eta errepresaliatutako pertsonen errolda eguneratzea.

(E38) 3.1.5. Ekintza. Erbestera joan behar izan zuten nafarren errolda egitea.

(E39) 3.1.6. Ekintza. Oroimen-elkarteekin elkartzeko eta haiekin batera oroimenaren arloko politika publikoak aztertzeko esparru egonkor bat sustatzea.

3.2. HE. ETaren terrorismoaren biktimen eskubideen aplikazioa bultzatzea.

(E40) 3.2.1. Ekintza. ETaren terrorismoaren biktimei laguntzeko plana finkatzea.

(E41) 3.2.2. Ekintza. ETaren terrorismoaren biktimen elkarrekin etengabeko elkarriketa eta lankidetzaren bultzatzea.

(E42) 3.2.3. Ekintza. Lankidetzaren eta koordinazio-akordio egonkor bat formalizatzea Espainiako Gobernuaren Barne Ministerioaren Biktimei Laguntzeko Bulegoarekin.

(E43) 3.2.4. Ekintza. Terrorismoaren biktimei laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea eguneratu dadin bultzatzea.

(E44) 3.2.5. Ekintza. Nafarroako Udalerriak eta Kontzejuen Federazioarekin akordio bat sustatzea, udalerriek berma dezaten, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan, beren udalerrietako espazio publikoak bizikidetzaren eremuak direla, ETAko kideen jardueraren aitortu, idealizatu edo goraiatzaren duten ekitaldi, mezua edo ikonografiarik gabekoak, eta gorroto-mezurik edo indarkeria terroristak justifikatzen duenik gabekoak.

(E45) 3.2.6. Ekintza. Oroimena duten eta bakea eta bizikidetzaren lantzen duten eskolaren sarearen esparruan unitate didaktikoak eta ikus-entzunezko materialak eskaintzea, ikasgeletara joaten diren terrorismoaren biktimei hezitzaileekin batera eta "De la mano/Eskutik" programaren bidez gazteek terrorismoaren eragina ulertzeko eta haiengan biktimekiko enpatia sustatzeko.

(E46) 3.2.7. Ekintza. Lankidetzaren instituzionala bultzatzea Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentro Fundazioarekin.

(E47) 3.2.8. Ekintza. Lankidetzaren hitzarmen bat egitea Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin.

3.3. HE. Terrorismo jihadistaren biktimen eskubideen aplikazioa bultzatzea.

(E48) 3.3.1. Ekintza. Terrorismo jihadistaren atentatuak eta biktimei buruzko informazioa eguneratzeko lanak egitea.

(E49) 3.3.2. Ekintza. Jardueraren plan bat ezartzea terrorismo jihadistaren biktimen arreta koordinatzeko.

(E50) 3.3.3. Ekintza. Etengabeko elkarriketa eta lankidetzarako esparru bat sortzea terrorismo jihadistak kaltetutako pertsonen elkarrekin.

3.4. HE. Eskuin muturreko terrorismoaren biktimen eskubideen aplikazioa bultzatzea.

(E51) 3.4.1. Ekintza. Eskuin muturreko terroristen atentatuei eta biktimei buruzko informazioa eguneratzeko eta areagotzeko lanak egitea.

(E52) 3.4.2. Ekintza. Eskuin muturreko terrorismoaren biktimei laguntzeko plana ezartzea.

(E534) 3.4.3. Ekintza. Etengabeko elkarrizketa eta lankidetzarako esparru bat sortzea eskuin muturreko terrorismoaren biktimekin.

(E54) 3.4.4. Ekintza. Eskuin muturreko terrorismoaren biktimei zuzendutako berariazko lan-agenda bat txertatzea, Espainiako Gobernuko Barne Ministerioko Biktimei Laguntzeko Bulegoarekiko lankidetzaren esparruan.

3.5. HE. Estatuko funtzionarioen indarkeriaren biktimen eskubideen aplikazioa bultzatzea.

(E55) 3.5.1. Ekintza. Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateari buruzko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea garatzea eta aplikatzea.

(E56) 3.5.2. Ekintza. Etengabeko elkarrizketarako eta lankidetzarako esparru bat sortzea Estatuko funtzionarioen indarkeriaren biktimen elkarrekin.

3.6. HE. Terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimen aitortza sozial eta instituzionala bultzatzea.

(E57) 3.6.1. Ekintza. Gobernuko erakundeek toki-erakundeekin, biktimen elkarrekin eta oroimen-elkarrekin batera sustatutako edo antolatutako ekitaldietan parte hartzea, terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktimak aitortzea helburu badute.

(E58) 3.6.2. Ekintza. Biktimen aitortzari eta terrorismoaren eta indarkeria politikoaren salaketari buruzko ekitaldi eta adierazpen instituzionalak sustatzea.

4. ARDATZ ESTRATEGIKOA: OROIMEN KRITIKO ETA INKLUSIBOA ERAIKITZEA

Hamarkada hauetan motibazio politikoak eragindako indarkeriak ez du jatorri politiko edo sozial bakar bat. Ez du izaera bera, ez da gauzatzen kausa berberak eraginda, eta ez ditu ondorio berak. Indarkeria guztiak ez dira sartzen ahal zaku berean, eta ez dira justifikatu behar bandoen arteko «akzio-erreakzio» prozesu modura.

Objektiboki egiaztagarria da terrorismoaren eta indarkeria politikoaren biktima gehienek ez zutela baliatzen indarkeria ezein bando hipotetikoren aurka. Batere gizalegerik gabe erabili zituzten, lardieran eta beldurrean oinarrituriko estrategia bat garatzeko.

Ikuspegi horretatik abiatuz, oroimen kritikoak argi eta garbi lagundu dezake bereizten, batetik, herritarren aurka indarkeria erabiltzea erabaki zutenen erantzukizuna, eta, bestetik, sekula borroka biolentoaren aldeko hautua egin ez zuten biktimen errugabetasuna.

Funtsezkoa da oroimena ikuspegi kritikoaz aztertzea. Horrek esan nahi du, alde batetik, ikerketa historikoan oinarritu behar dugula gertatutakoak zehatzago eta sakonago ezagutzeko, eta, bestetik, indarkeriazko gertaera horiek eta haien ondorioek gizartean, politikagintzan eta gizakiotan izaniko esanahiak aztertzeko eta interpretatzeko, guztia ere gertaeren zilegitasun-eta justizia-mailari buruzko balorazioak egin ahal izateko.

Ikuspegi kritiko horrexetan egiten du bat Nafarroako gehiengo politiko eta sozialak, eta ikusmolde horretatik egiten ditu bi tesi hauek:

- *Bidegabeak eta ez-legitimoak izan dira azken 85 urteetan bizi izandako indarkeriak, erasotzaileak edozein izanda ere.*
- *Izaera politikoko zuzeneko indarkeria horien egile guztiek modu larrian urratu zituzten biktimen giza eskubideak.*

Eremu sozial eta politikoan, etengabe aipatzen da ere oroimen inklusibo eta integral bat eraikitze beharra, Nafarroan bizi izandako indarkeriaren orrialde guzti-guztiak jasoko dituen. Terrorismoaren eta indarkeria politikoaren oroimenak testuinguru guztietan biktima izan diren pertsona guztiak hartu behar ditu kontuan. Giza eskubideen ikuspegitik, nahiz eta indarkeriak desberdinak izan eta une politiko eta historiko desberdinetan gertatu, beharrezkoa da horiek guztiak aitortzea, eta bermatu egin behar dira, orobat, egia, justizia eta erreparazioa jasotzeko eta berriz ez gertatzeko eskubideak.

Azkenik, oroimena transmititu egin behar da, eta oroimenak bizikidetzat hobe lortzeko ikaskuntza izan behar du, bizitako indarkeriazko gertakari larriak ez errepikatuz.

4. HELBURU OROKORRA: Terrorismoarekin eta indarkeria politikoarekin kritiko den oroimen bat eraikitzea, biktimak gizartean eta erakundeetan aintzat hartzen lagunduko duena.

HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK:

4.1. HE. Nafarroan izan diren terrorismoaren eta indarkeria politikoaren dimentsio, arrazoi eta ondorioen inguruko ikerketa historiko eta soziologikoa sustatzea.

(E59) 4.1.1. Ekintza. Oroimenari, bizikidetzari eta giza eskubideei buruzko dokumentuen eta ikus-entzunezkoen funts gehiago sortzea.

(E60) 4.1.2. Ekintza. Terrorismoa eta indarkeria politikoak zuzenean bizi izan zuten biktimen eta pertsonen testigantzak grabatu eta jendaurrean jartzea.

(E61) 4.1.3. Ekintza. NUPen dokumentu-funtsarekin hitzarmen bat sinatzea, funtsak ikertzeko eta handitzeko.

(E62) 4.1.4. Ekintza. Artxibo historiko eta sozial berriak eskuratzea defentsa-, barne- eta justizia-ministerioekin eta hainbat erakunde publiko eta pribaturekin sinatutako hitzarmenen bidez.

(E63) 4.1.5. Ekintza. Indarkeria politikoaren eta terrorismoaren eta haien testuinguruen inguruko ikerketa berriak sustatzea: LGTBI mugimenduaren errepresioa, frankismo-garaiko emakumearen errepresioa, 1936ko estatu-kolpetik aurrerako nafarren erbesteratzearen ondorioak, frankismoak eragindako errepresaliatu ekonomikoak, Nafarroako kargu publikoen aurkako terrorismoa eta kale borroka, etab.

4.2. HE. Herritarrak sentsibilizatzea oroimen kritikoak bizikidetzari indartzeko duen garrantziaz.

(E64) 4.2.1. Ekintza. Sentsibilizazio- eta dibulgazio-programa bat egitea urtero, erakusketa, hitzaldi, eztabaida, jardunaldi eta abarretan oinarritua.

(E65) 4.2.2. Ekintza. Toki-erakundeei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntzak emateko deialdiak, oroimenaren arloan sentsibilizazio-proiektuak garatzeko.

(E66) 4.2.3. Ekintza. Sentsibilizazio-jarduerak sustatzea, emakumeek terrorismoko eta indarkeria politikoko egoeretan izan duten eginkizuna ezagutarazteko.

4.3. HE. Espazio publikoak demokratizatze prozesuak indartzea.

(E67) 4.3.1. Ekintza. Sinbologia frankista kentzeko programa.

(E68) 4.3.2. Ekintza. Oroimenerako leku berriak eta oroimen-guneak onartzea eta sustatzea, toki-erakundeekin, oroimen-elkarteekin eta biktimen elkarteekin lankidetzan.

(E69) 4.3.3. Ekintza. Oroimenerako lekuen eta beste espazio batzuen inguruko ibilbide-sarea sortzea eta ezagutaraztea.

(E70) 4.3.4. Ekintza. Toki-erakundeekin, oroimen-elkarteekin eta biktimen elkarteekin lankidetzan aritzea, espazio publikoak eta oroimenerako lekuak indarkeria politikoak edozein modutan onartzen, idealizatzen edo gozesten duten ekintza, mezu edo

ikonografia orotatik babesteko, bai eta terrorismoa eta indarkeria politikoa justifikatzen edo gorrotatzen duten mezuetatik ere.

4.4. HE. Lankidetzaren sareak sortzea, autonomia-erkidegoen artekoak eta estatu- eta Europamailakoak, oroimen demokratikoaren garapenaren eta transmisioaren inguruan.

(E71) 4.4.1. Ekintza. Lankidetzaren hitzarmenak sustatu eta garatzea hauekin: Oroimen Demokratikoko Estatu Idazkaritza, EUROM, Memorial Democràtic, Euskadi, Aragoi, Errioxa...

5. ARDATZ ESTRATEGIKOA: BIZIKIDETZARAKO HEZTEA

Hezkuntza da funtsezko bitartekoetako bat, maila guztietan, bakearen eta bizikidetzaren kultura eraikitzeko. Nazioartean adostasun handia sortzen du horrek. Halaxe nabarmendu dute, orobat, Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoarekin loturiko parte hartzeko prozesuan egindako ekarpen askok.

Kontuan izanik haurtzaroan eta gaztaroan barneratzen direla balioak, arauak eta jokabide-ereduak, batez ere familiarekin, eskolarekin, hedabideekin eta sareekin, zentro erlijiosoekin eta berdinez osaturiko taldearekin elkarreraginean (sozializazio-eragile nagusiak), komenigarria litzateke horiekin guztiekin hitzartzea plangintza, eta, hala, sektoreka bereizitako esku-hartzeen emaitzak hobetzea.

Horregatik, egindako lanari eman zaion bultzada eta Nafarroako hezkuntza-sistemak duen eginkizuna kontuan hartzeaz gain, beharrezkoa da hezkuntza-potentzial handiko beste hezkuntza-espazio aintzat hartzea, hala nola eskola-ingurunea, Internet eta sare sozialak, komunikabideak, kultura eta kirola.

5. HELBURU OROKORRA: Trebakuntza-, hezkuntza- eta sentsibilizazio-ekimenak areagotzea eta hobetzea, sozializazio-esparru guztietan bizikidetzaren sustatzeko.

HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK:

5.1. HE. Oroimena, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko heziketa-proiektu bat sustatzea, Nafarroako ikastetxeetako eskola-komunitate osoari zuzendua.

(E72) 5.1.1. Ekintza. Oroimena duten eta bakea eta bizikidetzaren lantzen duten ikastetxeen sarea garatzea Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren eta Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren artean.

(E73) 5.1.2. Ekintza. Terrorismoa eta indarkeria politikoa jasan duten biktime hezitzaileen programak garatzea, batez ere DBH, Batxilergo, LH eta unibertsitateko ikasleei zuzendua.

(E74) 5.1.3. Ekintza. Nafarroako ikastetxeetan bizikidetzaren planak garatzen laguntzea.

(E75) 5.1.4. Ekintza. Skolae Programa laguntzeko eta indartzeko ekintzak bultzatzea.

(E76) 5.1.5. Ekintza. Laguntza Proiektua laguntzeko eta indartzeko ekintzak bultzatzea

(E77) 5.1.6. Ekintza. "Aniztasuna aberastasun" hezkuntza-proiektua garatzea eta sendotzea.

5.2. HE. Ikastetxeak ez diren beste eremu batzuetan bizikidetzarako hezkuntza-jarduerak sustatzea.

(E78) 5.2.1. Ekintza. "Bakea eta bizikidetzaren lantzen duten liburutegiak" programa sustatzea Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren eta Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren artean.

(E79) 5.2.2. Ekintza. Erresilientzia-tailerrak antolatzea, bizikidetzarako balioetan oinarritutako erresilientzia indartzen ikasteko.

(E80) 5.2.3. Ekintza. Oroimenarekin, bizikidetzarekin eta giza eskubideekin erlaxionatutako trebakuntza-jarduerak gehitzea "Gazteekiko Jardueren Nafar Eskolan" (Nafarroako Gazteriaren Institutuaren mendekoa da eskola hori).

(E81) 5.2.4. Ekintza. Oroimena, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko gaietan oinarrituta Europako boluntarioekin eta gazte boluntarioekin antolatutako lantegiak sustatzea.

(E82) 5.2.5. Ekintza. Bizikidetzaren arloko trebakuntza-proiektuetarako dirulaguntzen deialdia, tokiko erakundeei eta irabazi asmorik gabeko elkarteei zuzendua.

(E83) 5.2.6. Ekintza. Bizikidetzari buruzko erakusketa ibiltaria sortzea eta garatzea.

(E84) 5.2.7. Ekintza. Balioetan hezteko eta kirolguneetan indarkeria prebenitzeko proiektua indartzea eta egitasmo horretan lankidetzan jardutea.

5.3. HE. Interneten eta sare sozialen erabileran sen kritikoa sustatzea.

(E85) 5.3.1. Ekintza. Batez ere familiei, hezkuntza lanetan ari direnei eta gazteei zuzendutako trebakuntza-tailerrak antolatzea.

(E86) 5.3.2. Ekintza. Bizikidetzarekin zerikusia duten eta teknologien eta sare sozialen erabileran agertzen diren gaiei buruzko sentsibilizazio-kanpainak (albiste faltsuak, jarrerak eta balioak, arrazakeria eta jazarpena...)

5.4. HE. Komunikabideekiko lankidetzaren bultzatzea bizikidetzaren indartzeko lanean.

(E87) 5.4.2. Ekintza. Hedabideekin batera jendaurreko jardunaldiak antolatzea, haiek bizikidetzaren indartzeko duten eginkizuna aztertzea.

6. ARDATZ ESTRATEGIKOA: BIZIKIDETZARAKO ERAKUNDE ERREFERENTEAK

Erakundeak eta politikagintza tresna garrantzitsuak dira komunitatea antolatzeke, eta haien eragina erabakigarria da bizikidetzak hartzen duen izaera modulatzeko. Nafarroari dagokionez, esan dezakegu alderdi politikoak, tokiko entitateak, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentua eta erakunde horietan kokatzen diren pertsona guztiak direla eremu instituzional eta politiko espezifikoko eragile nagusiak.

Esan liteke demokrazia ez dela gatazkarik eza, baizik eta gatazka horiek kudeatzeko modu bat. Haren oinarrian, besteak beste, pluraltasuna errespetatzea ageri da. Erakundeen aldetik, demokrazia askotarikoak eta pluralistak eskatzen du bideak izan behar direla bai gatazkek adierazteko, bai gatazka horiek konpontzeko.

Konbentzimendu demokratikotik abiatuta, beti errespetatu eta legitimatu behar da alderdi politiko guztien parte-hartzearen bidezko hauteskondeekin osaturiko erakundeen konfigurazioa, norberaren aukera politikoetara gehiago edo gutxiago hurbiltzen dela ere. Hitzaren tokiak –hala nola udaletako eta kontzejuetako osoko bilkurak eta batzordeak, eta, adierazpen gorenean, Nafarroako Parlamentua– ahots eta ikuspegi desberdinak biltzeko, elkartzeko eta adierazteko agertokiak dira. Hori berezkoa du demokraziak. Baita bizikidetzak ere.

Erakundeen elkarrizketa-aniztasun demokratikoko ariketa honetan ezartzen den dinamikaren emaitza gisa, diskurtsoak, balioak eta portaera-ereduak ezartzea lortzen da, zeinak areagotuta eta biderkatuta iristen baitira komunitatera.

Oso garrantzitsuak dira politikagintzan eta erakunde-lanean dihardutenen jarrera eta praxia, eta, balio demokratikoak ordezkatzeari begira, eredugarri izan beharko lukete. Erakundeek eta haiek osatzen dituzten pertsonak etengabe eta arretaz begiratu behar diote guztion ongiari, erkidegoaren giza garapeneri. Politikaren eta erakundeen funtzio eredugarria da hori.

Ardatz estrategiko honen programazioan lehentasunezko lau elementu planteatzen dira: politikarekiko eta erakundeekiko mesfidantza eta desafekzioa, polarizazioa eta asaldua, itun-kultura baten beharra eta gobernantza on baten garapena.

6. HELBURU OROKORRA: Elkarrizketan eta itunetan oinarritutako prozesu instituzionalak bultzatu eta indartzea, eztabaidetan asaldua murriztuz eta gobernantza ona bultzatuz.

HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA EKINTZAK:

6.1. HE. Elkarrizketa demokratikoan erakundeek eta alderdi politikoek duten eredugarritasunari buruzko hausnarketa sozial eta instituzionala sustatzea.

(E88) 6.1.1. Ekintza. Hainbat gairi buruzko mahai-inguruak eta eztabaidak antolatzea: erakundeak eta bizikidetzak, politika deslegitimatzearen arriskuak edo nola heldu polarizazioari eta asaldurik politikoiari.

6.2. HE. Berdintasunik ezari eta desberdinen arteko bizikidetzari aurre egiteko Nafarroak behar dituen itun sozial eta politiko nagusiei buruzko hausnarketa sustatzea.

(E89) 6.2.1. Ekintza. Bizikidetzarako itunak eraikitzeari buruzko jardunaldiak antolatzea.

6.3. HE. Gobernantza oneko sistema bat bultzatzea bizikidetzarako.

(E90) 6.3.1. Ekintza. Gobernantza onari buruzko ikaskuntza-jardunaldiak, adituen eta erakundeetako ordezkarien parte-hartzearekin.

(E91) 6.3.2. Ekintza. Gobernu Irekiaren I. Plan Estrategikoarekin (2021-2023) koordinatutako ekintzak bultzatzea, gobernantza ona hobetzeko.

(E92) 6.3.3. Ekintza. Nafarroan giza eskubideen aplikazioari eta bizikidetzari buruzko ezagutza partekatua eta jakintzen interakzioa sustatzeko sistema pilotu bat garatzea.